


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktuaren atalak ez ditugu guk fabrikatuko. Hainbat pieza behar izango ditugu gure proiektua garatzeko:

["\(Eskema ikusteko esteka\)"](#)



Alde batetik, AliExpressen erositako giltzatzako txipak (1,95 euroan alea), mugikorrentzako fundak (2,25 euroan alea), haririk gabeko kaskoentzako fundak (0,50 euroan alea), kargagailua babesten dituzten fundak (1,01 euroan alea) eta txip txikiak (3,39 euroan alea). Txipak muntatzeko ez ditugu makinarik erosiko. Erositako txipak izango direnez, hauek muntatzeko hiru langile kontratatuko ditugu. Bestalde, diruzorroentzako txipen funden produkzioa amonen enpresaren esku utziko ditugu.

Produktuaren diseinua guk egingo dugu eta kolore ezberdinetako fundak eta txipak erosiko ditugu. Materialen eta txipen garraioa kamioi enpresa banaketa bati utziko diogu, hain zuzen ere, Langarri enpresari. Enpresa hau arduratuko da materialak ekartzeaz, eta eros dendetara eramateaz.

Produktua gehiago saltzeko marketing-a egingo dugu interneten eta sare sozialetan.



Youtuben iragarkiak agertuko dira eta gure instagram eta webgune kontuak sortuko ditugu eta bertan produktuak erosi ahal izango dituzte, gainera noizean behin ofertak eskainiko zaizkie ere. Sare sozialetatik aparte, gure enpresa ezagutzeko propaganda "txarteltxoak" eta dendetan jartzeko kartelak egingo ditugu. Guzti honetarako bi langile izango ditugu, hau da, marketing-ean espezializatutako bi langile kontratuko ditugu.